



{ analisisia } **Mikel URDANGARIN IRASTORZA**

Gizon zuri haserretuak

Amerikako Estatu Batuetako gizon zuriak zergatik daude haserre? Zergatik hain era suhar eta orokortuan? Horren arrazoiak eta adierazpideak ulertu nahian, Kimmel soziologoak horietako ugari elkarrizketatu ditu.

Liburu honek ez dihardu Donald Trumpi buruz: bere jarraitzaileei buruz dihardu». Honela iragartzen du Michael Kimmel soziologoak “Angry White Men” [Gizon Zuri Haserretuak] liburuaren azken edizioaren hasieran. Liburuaren lehen edizioa 2013an idatzi zuen, Trump artean “celebrity” (edo *xelebrity*) aberaskume bat zenean. Amerikako Estatu Batuetako gizon zurien haserrearen ulertzea zen xedea, fenomeno sozial orokortu bezain kezagarria bai-

tzen ordurako. Horretarako, gizon zuri heterosexual ugari elkarrizketatu zituen.

Argitzen zuenez, ez zuen goitik behera egin, gutxiespen edo penatik, «espezie exotikoren baten aleak aztertzen dituen zientzialari bat izango balitz bezala». Haste-ko, elkarrizketatuak ez dira salbuespenezko “eroak”, ezta “irrazionalak” ere; kontrara, gizon gisa ezarritako normak era «konformistan» jarraitu eta haragiztatu dituzten gizon “normalak” dira. Segitze-ko, ikertzailea (eta artikulu hau sinatzen duena) ez dago horiengandik kanpo eta gainean. Hori kontuan izanik, haserre horren nondik norakoak parez pare ulertzen saiatu zen.

Orduko analisisiek ez dute gaurkotasunik galdu, hori gabe ez baitago ulertzerik Internazional Erreakzionarioen gorakada edota Trumpen indarra, ezta aurtengo hauteskunde-kanpainan aipagai den genero-arrakala ere. Hala iza-

nik, horko zenbait irakaspen azalduko ditugu jarraian.

Erreala, ez zuzena

Amerikako Estatu Batuetako gizon zuriak haserre daude (ez hangoak bakarrik). Baztertuak, gutxietsiak eta isilaraziak sentitzen dira. Haserre daudenak zergatik dira gizonak, ordea? Eta zergatik zuriak? Eta zergatik era orokortuan?

Beste edozein kolektibo edo minoritari gertatuz gero (adibidez, gizon beltzei edo emakume asiarrak), horri buruz arituko ginateke etengabe: «Baina, hain zuzen ere, bere nabaritasunagatik, apenas izan den eztabaidagai serioa». Gizon zuriak hiritar amerikarraren irudi neutroa izan direnez, ez da generoaren eta arrazaren arabera irakurketa espezifikorik egiten. Gutxiengoak izanagatik, haiek ez dira, nonbait, minoria. Horren aurrean, Kimmel gizon zurien haserrearen propioki aztertzen saiatu da.

Hori aztertzerakoan, soziologoa honako premisatik abiatu da: sentimendu horiek ez dira zuzenak, baina errealeak dira. Bere hitzetan, «gizon zurien amorrua ‘benetakoa’ da; hau da, sakonki eta zinez sentitzen da. Hala ere, ez da ‘legitimoa’; alegia, ez du bere egoeraren analisi zuzena islatzen». Beraz, egoeraren inguruko gezur edota erdi-egietan oinarrituagatik, haserre hori ez da gezurrezkoa. Oso erreala da, nola bizipenean, hala ondorioetan (askotan tragikoki erreala).



Ezker zein eskuin, Trumpen jarraitzaileak diren bi gizon zuri haserre. Ezkerrekoak haserre suharki adierazten du; eskuinekoak, aldiz, Trump jasaten ari den «jazarpena» salatzen du.
Andrew LICHTENSTEIN | GETTY IMAGES

Zentzu horretan, Kimmelen helburua ez da gizon horien argudioak gezurtatzea soilik, baizik eta argudio oker horien atzean dauden arrazoiak ulertzea, ondoren marko alternatibo bat eskaintzeko.

Agrabio konparatua

Gizon zuri estatubatuarrak zergatik daude haserre? Marka da, gero, beraiek izatea haserrearen monopolioa dutenak, historiako klaserik pribilegiatuenetakoak izan direnean: «Amerikarrak izate hutsagatik, Lurreko pertsonarik aberatsenen artean daude. Zalantzarik gabe, herentziazko aristokraziatik kanpoko talderik pribilegiatuena dira». Adibidez, munduko biztanleriaren %5 izanagatik, baliabideen %40 xahutzen dute amerikarrek. Gizona eta zuria izanez gero, zer esanik ez.

Paradoxa iruditu badakigu ere, akaso pribilegio horietan bilatu behar da suminduraren arrazoa. Izan ere, Kimmelen ustez, gutxitasuna ez da abstraktuki neurtzen, baizik eta erlatiboki sentitzen da, espektatibekiko eta bestee-kiko erlazioan. Ezer ez dutela merezi uste dutenei, gutxi asko iruditzen zaie; dena izateko eskubidea auresuposatzen dutenei, aldiz, asko gutxi.

Horri lotuta, haserre ere konparatiboa izaten da. Agrabio sentsazioa izateko, ez da aski desjabetzea; horrez gain, kendu dizuten hori eskubidez zuri dagokizula sentitu

behar duzu aurrez. Nagusitasuna orduan eta handiagoa eta naturalizatuagoa izan, handiagoa izango da sumindura: «Ironikoki, zilegitasun sentimendu hori ez da txar-keriaren sintoma bat, baizik eta pribilegioena. Ezer ez dutenek ezer ez dutela merezi uste dute; zerbait dutenak dira horretarako eskubidea dutela uste dutenak».

Zentzu horretan, agrabioa sentitu eta adierazten dutenak askotan ez dira «galtzeko ezer ez dutenak» izaten, baizik eta «galtzeko zerbait izan badutenak... eta, hain zuzen, galtzeko zorian ote dauden beldur direnak». Hala izanik, Kimmelen-tzat klase dekadenteek abiatu ohi dituzte oldarraldiak (one-rako edo txarrerako).

«Non dago ordaina?»

Soziologoak azaltzen duenez, Amerikako Estatu Batuetako gizon zurien haserre ere agrabio konparatuaren arabera ulertu behar da. Kasu honetan, «amets amerikarra» agindu zieten: bakoitzak bere aspirazio, talentu, diziplina eta lanaren araberrako

oparotasuna izango du. Gogor lan egin, arauak bete eta zergak ordainduz gero, familia eta nazioa aurrera aterako zituztela sinetsarazi zieten.

Esaneko gizon zuriek fermuki sinetsi dute. Springsteenek «The promised land» abestian adierazten zuenez, «Jauna, ez naiz ume bat; ez, gizon bat naiz / Eta agindutako lurrean sinesten dut». Halaxe, gizonki beharrezkoa den oro egin dute, ondoren eskubidez zegozkien onurak jasoko zituztelakoan.

Alabaina, gizon arrakastatsua izateko amets eta exigentzia hori mantendu bada ere, hori gauzatzeko baldintza politiko, sozial eta ekonomikoak hankaz gora jarri dira. Batetik, azken hamarkadatan aberatsen eta klase ertainaren arteko arrakala handitu egin da: enplegu industrialak suntsitu egin dira, ganadutegiak, betiko komertzioak eta bestelako negozio familiar txikiak itxi egin dira... Independentzia ekonomikoa galdu dute eta jada ezin dute beraien kabuz etxea erosi eta familia aurrera atera. Semeei,

etorkizun oparo bat beharrean, zorrak utzi dizkiete (agidanez, alabarik ez dute).

Bestetik, behean zeuden «besteak» gizon zurien pare jartzea aldarrikatzen ari dira. Pentsa, 2042an zuriak gutxiengo izango dira. Elkarriketatuen hitzetan, feminismoa «urak gainezka egiteko falta zen tanta» izan da. Horren ondorioz, emazteek «arrazoirik gabe» uzten dituzte eta semeak «kintzen» dizkiete. Jada gizonak ez ei dituzte «plazererako eta umeak ekartzeko ere behar». Hori gutxi balitz, ez diete patxadaz eta askatasunez hitz egiten ere uzten. Zuzentasun hertsagarriaren mende, gizonak «kastatuta» daude.

Aldaketa horiek medio, ameslari amerikar horietako asko arrakastatsua beharrean «looser»-ak dira. Soldataz harago, familiaburu bezala zegokien izena ona eta ohorea galdu dituzte. Eta «umiliatuta» sentitzen dira. Izan ere, gizonak, gizon izateko, boteretsu eta nagusi izan behar du, etengabe irabaziz. Galtzea eta ahul agertzea desohorea da, gizontasuna bera galtzea. Bidenabar, momentuz irabazleak direnak ere «antsiak jota» daude, balizko porrotaren ikaraz: aukera berdintasuna bera «beldurgarriegia da bere identitate guztia beti eta aldi oro irabaztean oinarritzen duen genero baltentzat».

Izututa ez ezik, «traizionatuta» sentitzen dira. Izan ere, beraien ustez beraiek bete dute beraiei zegokiena; arazoa da orain ez dutela «merezitako» ordainsaririk jasotzen. Sindikatuek ere ez dituzte babesten. Nazio amerikarra beraiek altxatu ondoren, orain inor ez da beraiekin akordutzen. Are okerrago, «*de facto* errudun» izendatuta, traba gisa ezau-garritu dira. Ondorioz, gal-tzaileak beharrean «biktimak» omen dira: dagokiena kendu diete eta ezin dira ke-xatu ere egin.

Job elkarrizketatuaren testigantzan ezin argiago ikus-ten da hori. Promesa batzuk egin zizkioten: «Nik uste nuen, zuzen jokatzuz gero, eskatu zidaten guztia eginez gero, ondo joango zitzaidala, ulertzen? Gogor lan egin eta aberastu egingo zara, larrutan egingo duzu». Berak arauak galanki bete ditu: «Hogeita hamar urtez, sekulako soldadua izan naiz». Baina orain ez du dagokion ordainik jasotzen: «Eta orain etortzen zara eta botatzen didazu: ‘Sentitzen dut, inork ez dizkizu sari horiek guztiak emango’. Nola ausartzen dira besterik gabe kentzera? Irabazi egin dugu!». Hori gutxi ez, «eta, gainera, gu al gara etsaiak?».

Bistan denez, biziki sinetsi dute amets amerikarrean, bi-ziki egin dute lan hori gauza-tzeko eta, ustez dagokien ho-

ri kendutakoan, biziki hase-rretu dira.

Gu edo haiek

Norekin haserretu? Nork jo die adarra? Kimmelek galde-ra hori erantzun nahian su-matzen ditu gizon zuri esta-tubatuarrak. Bere hitzetan, horretarako errelato «para-noikoa» josten dute askok. Horren arabera, abiapuntua idilikoa zen: norbere lan, etxe eta nazioaren jabe ziren estatubatuarrak, askatasun eta oparotasunean. Aitzitik, konspirazio handi batek egoera natural hori atzekoz aurrera jarri du. Minbizi bat bailiran, «indar arrotzak» in-stitutzioetan eta gizarte zibile-ko esparru orotan «infiltra-tu» dira eta dena kutsatu dute. “Beraiena” zen boterea lapurtu eta “haiengana” es-kualdatu dute: «‘Guk’, oparo-tasun amerikarraren oinor-deko zilegiek, ikusi dugu nola burokrata ezgai eta anoni-moen kuadrilla batek eskubi-dez gurea dena kendu digun, ‘haiei’ emateko: eskean ibil-tzen diren minoriak, immi-granteak, emakumeak, gayak eta jendaila hori dena».

Agerikoa denez, errelato ho-rretan argi zedarrituta dago “gu” eta “haiek” arteko arda-tza. Batetik, “gu” bat dago, es-tatubatuar autentikoez (hau da, gizon zuriez) osatuta; bes-tetik, “haiek”, era guztietako minoriek osatutako jendilaje inbaditzailea. Tartean, gober-nuko burokrata odolgabeak,



“haien” menera dauden elite “progre”, “maritxu” eta kos-mopolitek gidatuta.

Behin batzuk eta besteak be-reizita, berdintasun sexual eta arrazazko ekinbide oro porrot bezala bizi da. Zero-baturako logikan, «‘haiek’ irabazten ba-dute, ‘guk’ galdu egiten du-gu». “Haiek” agintzen badute, “gu” horrek ezingo ditu bere enplegu, etxe eta emakumeak kontrolatu. “Gu” edo “haiek”, izan ala ez izan, hori da ataka.

Batzuen eta besteen arteko deman, “haiek” lortutako es-kubide oro “gu” horren kon-trako ebaste ilegítimo bezala salatzen da. Hautaketa pro-zesuan enplegua beste bati eman ez gero, «emakume beltz bat nire lanarekin gera-tu da» esaten da. Enplegua eskubidez beraiena denez, ez ematea kentzea da. Emaku-meek espazioak irabaziz ge-

ro, beraien eremuetan «mu-turra sartzen» dutela gaitzi-ritzten da. Obama presidente hautatzea, berriz, «estatu-kolpe» onartezintzat jotzen da. Instituzioak naturaz be-raiei dagozkienez, botoak bo-to, “haien” garaipen oro «la-purreta» izango da (horixe izan zen Kapitolioa hartzeko argudioa ere).

Gizon zuri haserretuentzat, oro har, hori da beraien ezi-nen azalpena: “haiek” espa-rru orotan infiltratu dira eta beraiei zegozkien bizimodu eta nazioa lapurtu dizkiete.

Berrezarpena

Egoera horretan gizon zuri as-ko norbere baitan oskoltzen dira. Atsekabetuta, minduta eta galduta badaude ere, ez dute halakorik adierazten, ho-ri baita gizontasunaren man-datu nagusietako bat: ez ager-



tu zaurgarri, norbere mise-
riak norbere kolkorako gorde.
Kezkak pilatu ahala, azkenera-
ko lehertu egiten dira batzuk:
depresioak, suizidioak...

Guru eta tertuliakide ez-
berdinek errepikatzen duten
eran, baina, amerikarren aur-
kako gurutzada feminista eta
multikulturalaren aurrean,
ezin da etsi. Rambok nola,
erantzun eta mendekua har-
tu behar da: «Fight, fight,
fight», Trumpen hitzetan. Zi-
legia ez ezik, betebeharrak mo-
rala da: «Gizon askorentzat,
umiliazioak mendekua eska-
tzen du; bestela, gizon iza-
teari utziko liokete». Kultura
amerikarrean ere erabat
errotuta dago hori: lehen
kolpea jotzea ez da zuzena;
erantzun eta mendekua har-
tzea, aldiz, ohoragarria da.
Hala, errelato konspiratzaile
horretan borrokarako deia

Trumpen jarraitzaileak
Kapitoliora indarrez
sartzen, 2020ko
hauteskundeetako ustezko
«lapurreta» salatzen.
Lev RADIN | EUROPA PRESS

egiten da beti: kolpea jaso
ondoren, egoera «larria» de-
nez, «berehala erantzun
behar da». Adibidez, Obama-
ren hautaketa «araza arteko
gerra global eta apokalipti-
koaren» abiapuntu bezala
sentitu zuten askok.

Borroka horretan biolen-
tzia funtsezko aldagaia da.
Izan ere, gizonak mutikotat-
ik ikasten dute biolentzia
gatazkak kudeatzeko modu
zilegia eta miresgarria dela,
gizonen birilitea horren bi-
dez berresten baita publiko-
ki: «Indarkeria helburu bate-
rako bitartekoa izango
litzateke: ohorearen eta
errespetuaren erreparazioa,
umiliazio bat emendatzeko
gaitasuna». Horrela ulertzen
dira, besteak beste, seme-
alabei ustez «onena» egiteko
beraien emazte ohiei «oke-
rrena» egiteko saiakerak;
emakumeekiko kontrola be-
rrezartzeko indarkeria ma-
txista; migratzaileen «uhol-
deari» aurre egiteko miliziak;
«maritxuen» aurkako jazar-
pena edota ingurukoak (eta
ondoren norbera) akabatzen
dituzten «masakrizidioak».

Mendeku horren bidez,
«haiek» garaitu eta «gauzak
bere lekuan» jartzea da as-
moa: familiaburu gisa autori-
tatea berreskuratu, emaku-
meen gorputzarekiko jabetza
naturala berrezarri, zurien
nagusitasuna berriz konkis-
tatu... Finean, «ber-» aurriz-
kiak adierazten duenez, kons-
pirazioek kutsatu aurretiko

iragan loriatsura itzuli nahi
da. Trumpen leloak dioenez,
«Make America Great Again».

Beste norabide bat

Agerikoa denez, gizon zurien
haserrearen arrazoiak eta adie-
razpideak ezin dira ulertu gi-
zontasuna aintzat hartu gabe.
Patriarkatuaren barruan, gi-
zon izatea nagusi izatea da, es-
kubidez botere-posizio horren
jabe izatea. Hori auzitan jarri-
z gero, umiliatuta eta erasanda
sentitzen dira, bere izatea bera
mehatxatutako biktimak. Ho-
rren aurrean, beren birilitea
berrezartzeko biolentziarako
eskubidea eta, are, betebeharrak
moralak dutela sentitzen dute.
Trump, funtsean, mendeku
kolektibo eta biolento horren
ikurra baino ez da.

Kimmelen iritziz, baina, ha-
serre hori ez du zertan Trum-
pek (eta oro har, Internazio-
nal Erreakzionarioak)
kanalizatu. Ezinegon hori bes-
telako arrazoi eta norabideen
arabera bideratzeko aukerak
egon badaude. Horren lekuko,
gorrotoz betetako epai arran-
ditsu askoren atzean hamar-
naka konplexu eta beldur ere
sumatu ditu bere elkarrizke-
tetan zehar. Beraz, arrangura
horiei nola eman dakieke bes-
telako erantzun bat? Auzia te-
rapeutikoa baino politikoa
dela kontuan izanik, pare bat
ekinbide politiko planteatzen
ditu liburuan zehar.

Batetik, bere irudiko gizona-
ri lotutako posizio, ideal eta
arauak birpentsatu egin behar

dira. Gizon zuria eskubidez na-
gusi sentitzen den artean, eral-
daketen aurrean ernegatuta ja-
rraituko du; beti irabazi behar
badu, oparotasunean ere an-
tsiatsu egongo da. Bien bitar-
tean, gutxiengo horren azpitik
dauden guztiak zapalduta. Ho-
rren aurrean, soziologoaren-
tzat «amorrutik hori lantzeak gi-
zonak 'gaitzea' eskatzen digu,
maskulinitatearen definizio
berri bat bere egin dezaten, es-
kubidearen zentzu faltsu ho-
rretatik deslotuta, gizon zuriak
etorkizun berdinazaleago eta
saihetsezin baterantz konfian-
tzaz egin dezan aurrera».

Bestetik, «gizon estatuba-
tuarren sektore zabalak esku-
bidez gabetzen dituzten eta
borrokarako gogoz galbidera
eramaten dituzten politika
eta programei aurre egiteko
lan egin behar dugu». Kim-
melek aldarrikatzen duenez,
gizon zuriek ez dute gehiago
eduki eta izateko eskubidea,
baina bai enplegu duin bat,
segurtasun sare bat edota bi-
zitzaren asegari bat izateko es-
kubidea, beste herritar orok
bezalaxe. Hortaz, gizonen
zuri aberatsen aurka eta
etsaitzat jotzen diren «beste»
mugimendu horien eskutik,
denontzako bizitza duinak
bermatzeko politika publi-
koak bultzatu behar dira.

Hitz lauz esanda, behera eta
iraganera baino, gora eta etor-
kizunera begiratu behar da,
denon eskubideak zabaltzeko.
Trumpen edo bera gabe, ez
da erronka makala izango.